

A

**ANTOLAKUNTZA-
ETA**

J

JARDUERA-

A

ARAUDIA

**BARTOLOME ERTZILLA
KONTSERBATORIO ETA
MUSIKA ESKOLA**

Durango, 2025eko apirilaren 28an / 28 de abril de 2025

Bartolome Ertzilla
Kontserbatorioa eta
Musika Eskola
DURANGOKO UDALA



Escuela de Música
y Conservatorio
Bartolomé Ertzilla
AYTO. de DURANGO



AURKIBIDEA

SARRERA.....	1
<u>ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....</u>	1
1. artikulua. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolaren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak	
<u>I. TITULUA. ANTOLAMENDUA</u>	2
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	2
2. artikulua. Aginte-organoak	
3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza	
4. artikulua. Koordinazio pedagogikorako organoak	
5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio pedagogikorako organoen jardunaren oinarriak	
II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK	3
I. ATALA. KONTSEILU ERREKTOREA	3
6. artikulua. Kontseilu Errektorearen ezaugarriak eta osaera	
II. ATALA. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA.....	3
7. artikulua. OOGren ezaugarriak eta osaera	
8. artikulua. OOG hautatzea eta berritzea	
9. artikulua. Presidentea eta idazkaria ordezkatzeta	
10. artikulua. OOGren funtzionamendu erregimena	
11. artikulua. OOGko batzordeak	
III. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA.....	4
12. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera	
13. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena	
14. artikulua. Klaustroaren eskumenak	
IV. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA.....	5
15. artikulua. Zuzendaritza taldea	

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK.....6

- 16. artikulua. Presidentea
- 17. artikulua. Kudeatzailea
- 18. artikulua. Zuzendaria
- 19. artikulua. Ikasketaburua
- 20. artikulua. Idazkaria
- 21. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organoak izendatzea eta kargua uztea
- 22. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeari

IV. KAPITULUA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKOKO ORGANOAK.....8

- 23. artikulua. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako koordinazio pedagogikoko organoak

I. ATALA. TUTOREAK.....8

- 24. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea
- 25. artikulua. Tutoreen funtzioak

II. ATALA. IRAKASLE-TALDEAK9

- 26. artikulua. Irakasle-taldearen osaera eta araubidea
- 27. artikulua. Irakasle-taldearen funtzioak

III. ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK.....10

- 28. artikulua. Didaktika-departamentuen ezaugarriak eta osaera
- 29. artikulua. Didaktika-departamentuen funtzioak eta eskumenak
- 30. artikulua. Didaktika departamentuen izendapena
- 31. artikulua. Didaktika-departamentuetako buruen izendapena eta eskumenak

IV. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA.....12

- 32. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera
- 33. artikulua. Koordinazio pedagogikorako batzordearen funtzionamendua eta eskumenak

V. ATALA. PROZESU-TALDEAK13

34. artikulua. Prozesuen araberako kudeaketa

35. artikulua. Prozesu-taldeen izaera, funtzioak eta osaera

V. KAPITULUA. IKASTETXEKO JARDUERA PLANIFIKATZEKO ETA ANTOLATZEKO TRESNAK.....14

36. artikulua. Ikastetxeko jarduera planifikatzeko eta antolatzekeo tresnak

37. artikulua. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP)

38. artikulua. Ikastetxeko Ikasketa Proiektua (IIP)

39. artikulua. Antolaketa eta Jarduera Araudia (AJA)

40. artikulua. Plan Estrategikoa (PE)

41. artikulua. Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)

42. artikulua. Urteko Memoria (UM)

VI. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK15

I. ATALA. IKASLEEN PARTAIDETZA-ORGANOAK.....15

43. artikulua. Ikasleen Biltzarra

44. artikulua. Ikasle-elkarteak

II. ATALA. GURASOEN PARTAIDETZA-ORGANOAK17

45. artikulua. Gurasoen Biltzarra

46. artikulua. Guraso-elkarteak

II. TITULUA. BIZIKIDETZARAKO ARAUAK19

I. KAPITULUA. OINARRI OROKORRAK.....19

47. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

48. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

49. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA.....20

50. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

51. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

52. artikulua. Ohorea, intimitatea eta norbere irudia babesteko eskubidea

53. artikulua. Biltzeko eskubidea

54. artikulua. Bertaratze-hutsegite kolektiboak arautzea

55. artikulua. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK22

56. artikulua. Oinarri orokorrak

57. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

58. artikulua. Jokabide desagokiak

59. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

60. artikulua. Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak

61. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA24

62. artikulua. Oinarri orokorrak

63. artikulua. Publikotasuna

64. artikulua. Ikasle eta gurasoentzako informazioa

65. artikulua. Ikasleen lanak, probak, zuzendutako ariketak eta grabazioak berrikustea

66. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

67. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea

68. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

69. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa

70. artikulua. Didaktika-departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

IV. TITULUA. IKASLEEN ANTOLAMENDUAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK27

71. artikulua. Ikasleen antolamendua

72. artikulua. Ikasleen ordutegia

73. artikulua. Beste Kontserbatorio batzuetatik espedientea lekualdatzea



74. artikulua. Matrikulari uko egitea

75. artikulua. Ikasleen bertaratzea eta bajak

76. artikulua. Sartzea, jarraitzea eta mailaz igotzea

V. TITULUA. ERANSKINAK29

I. KAPITULUA. ZUZENDARITZA TALDEA HAUTATZEA.....29

77. artikulua. Prozedura eta iraupena

78. artikulua. Hauteskunde-mahaiaren osaera eta eginkizunak

79. artikulua. Pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzeko eta kargutik kentzeko proposamenak

80. artikulua. Hautagaiak eta hautesle-errola

81. artikulua. Botoa eskuordetzea

II. KAPITULUA. ZENTROAREN BESTELAKO ARAU ETA PROTOKOLOAK30

82. artikulua. Babesgabetasuna, tratu txarrak, sexu-jazarpena, sexu-arrazoiengatik jazarpena, haur eta nerabeen sexu-abusua eta genero-indarkeria prebenitzeko eta egoera horiei aurre egiteko protokoloa

83. artikulua. Ikastetxetik kanpoko jarduera osagarriak

84. Instrumentuak lagatzea

85. Ikasketa-gelak

86. Ordutegia aldatzeko eskaerak

87. artikulua. Ikasketa profesionalean instrumentu osagarria aldatzeko eskaerak

88. artikulua. Musika Eskolan instrumentu nagusia eta bigarren instrumentua aldatzeko eskaerak

89. artikulua. Irakaslea aldatzeko eskaerak

90. artikulua. Eraikinera eta bertako geletarako sarbidea, kudeaketa eta erabilera

91. Ikastetxe barruan edo kanpoan grabatutako irudiak argitaratzea

Bartolome Ertzilla
Kontserbatorioa eta
Musika Eskola
DURANGOKO UDALA



Escuela de Música
y Conservatorio
Bartolomé Ertzilla
AYTO. de DURANGO

SARRERA

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak ezartzen duen bezala, Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak, antolaketa-, pedagogia- eta kudeaketa-autonomia baliatuz, Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA) egin du, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen berezko dokumentu gisa. Horren bidez eta, bertan jasotako xedapenen bidez, bizikidetza-giroa sortu nahi da, ikastetxearen funtzionamendu egokia bermatzeko, jarduera akademikoak eta administrazio- eta ekonomia-araubidea behar bezala garatzen direla bermatzeko eta, beraz, hezkuntza-komunitate osoari zerbitzu hobea ematen laguntzeko.

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolaren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskola Durangoko Udalaren mende dagoen ikastetxe publikoa da. Bertan musika-irakaskuntza arautu eta ez-arautuak eskaintzen dira.
2. Euskadiko arte-irakaskuntzen funtsezko osagai den aldetik, ikastetxeak kalitatezko arte-prestakuntza eskaintzen die herritar guztiei, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legean araututako printzipioei jarraiki. Lege horretan, konpentsazio-politikak aplikatzen dira faktore funtzional, sentensorial, kognitibo, sozial, ekonomiko, kultural, geografiko, etniko edo bestelakoetatik eratorritako desberdintasunak saihesteko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.
3. Zentroak bere egiten ditu zentroaren misioa, ikuspegia eta balioak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.
4. Zentroak, zentroko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerako guztien eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartzen du.

I. TITULUA. ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. Artikulua. Aginte-organoak

1. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak kide anitzeko eta pertsona bakarreko aginte-organo hauek izango ditu:

a) Kide anitzekoak: Kontseilu Errektorea, Ordezkaritza Organo Gorena, Irakasleen Klaustroa eta Zuzendaritza Batzordea.

b) Pertsona bakarrekoak: presidentea, kudeatzailea, zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria.

3. Artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza

1. OOGren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalak zentroaren kudeaketan parte har dezakete.

2. Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztutakoari jarraiki, gurasoen batzarrak eta ikasleen parte hartze-organoek ere zentroaren kudeaketan parte hartuko dute.

3. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako ikasle- nahiz guraso-elkarteen egoitza izango da. Zentroak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte horiei haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, elkarteek zentroaren bizitzan parte hartzea sustatuko du. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.

4. artikulua. Koordinazio pedagogikorako organoak

Klaustroaren zuzendaritzapean, honako hauek izango dira Koordinazio Pedagogikoko Organoak:

a) Tutoreak

b) Irakasle-taldeak

c) Didaktika departamentuak

d) Koordinazio Pedagogikorako Batzordea

e) Prozesu-taldeak

5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio pedagogikorako organoen jardunaren oinarriak

1. Zentroko aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio pedagogikorako organoek zainduko dute zentroko jarduerak bertako misioan, ikuspegian eta balioetan jasotako printzipio eta balioen arabera garatzen direla, bai eta Musika- eta Dantza-Eskolei buruzko Dekretuaren 3. artikuluan adierazitakoaren arabera ere, eta irakaskuntzaren kalitatea zainduko dute.

2. Horrez gain, aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio pedagogikorako organoek bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.

3. Mintzagai ditugun organoek, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek zentroko bizitzan, kudeaketan eta ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. KONTSEILU ERREKTOREA

6. artikulua. Kontseilu Errektorearen ezaugarriak eta osaera

1. Kontseilu Errektoreak bere gain hartuko ditu Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolaren gobernua eta goi-mailako kudeaketa, Durangoko Udalaren mendeko erakunde autonomo gisa.
2. Honen osaera eta eskumenak erakunde autonomoaren estatutuetan ezarritakoak izango dira.

II. ATALA. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA

7. artikulua. OOGren ezaugarriak eta osaera

1. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek hartuko dute parte zentroaren kudeaketan. Organo horrek OOG izena hartuko du.

2. OOGren eskumenak honako hauek izango dira:

- a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, antolaketa- eta funtzionamendu-araudia eta kudeaketa-proiektua onartzea, horiek betetzen direla zaintzea eta ebaluazioa egitea, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 28.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- b) Ikastetxearen urteko plana onartzea, 14.a) artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- c) Prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa-programa onartzea, eta horien aldizkako jarraipena eta ebaluazioa bere gain hartzea.
- d) Zentroko urteko memoria onartzea.
- e) Ikasleak onartzeari buruz erabakitzea, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.
- f) Gatazkak ebaztea eta ikasleen diziplinaren arloko zehapenak ezartzea, ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten arauen arabera.
- g) Kultura- eta hezkuntza-helburuak dituzten beste ikastetxe batzuekin lankidetzaren harremanak ezartzea.
- h) Eskolako instalazioen eta ekipamenduaren berrikuntza sustatzea, eta haien kontserbazioa zaintzea.
- i) Zentroaren jarduera orokorra gainbegiratzeko, administrazio- eta irakaskuntza-alderdiei dagokienez.

3. OOG ondoko hauek osatuko dute:

- a) Zuzendaria, OOGko buru izango dena.
- b) Ikasketaburua.
- c) Klaustroak aukeratuko dituen hamar irakasle.
- d) Ikasleen gurasoen bederatzi ordezkari. Legez sortu den guraso-elkarte garrantzitsuenak ordezkari horietako bat aukeratuko du.
- e) Ikasleen sei ordezkari. Musikako ikasketa profesionaletako lehen mailatik aurrera.
- f) Administrazio- eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- g) Presidentea.
- h) Zentroko idazkaria. OOGko idazkari izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

8. artikulua. OOG hautatzea eta berritzea

Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

9. artikulua. Presidentea eta idazkaria ordezkatzeko

1. Zuzendaria ez badago, zuzendariordea izango da zentroko burua. Kargu hori ez badago, ikasketaburuak hartuko du lehendakaritza, edo, hala badagokio, zentroko OOGko kide diren irakasle zaharrenak.

2. Idazkariorderik egon ezean, ikastetxeko OOGko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

10. artikulua. OOGren funtzionamendu erregimena

1. OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespina. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

2. Ezohiko bileretarako deia egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.

3. OOG hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez ¹. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiek derrigor joan beharko dute OOGren bileretara.

4. OOGk gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu honetan izan ezik: hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA nahiz AJAren aldagetak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.

5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

11. artikulua. OOGko batzordeak

1. OOG batzorde iraunkorra izango da eta dokumentu honen 15.4 artikuluan aipatzen diren eginkizunak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dute: zuzendariak, ikasketaburuak, irakasle batek, ikasleen guraso batek eta sektore bakoitzean aukeratutako ikasle batek. Organo honek gehiengoz hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez.

2. OOGk auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek, artikuluko honen aurreko atalekoa barne, azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumeneak diren gaietara buruz. Artikulu honetako 1. atalean, indarrean dauden arauak betetzearekin lotura duten zenbait gai aztertuta dira. Arauetan aurreikusi diren kasu horietan izan ezik, sortu diren batzorde bereziek erabakiak har ditzakete. Horretarako, berariazko eskumena behar dute eta OOGko osararekiko proportzionalak izan behar dira. Batzorde berezien esku, gehiengo soilez ebatz daitezkeen erabaki guztiak utz daitezke.

III. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

12. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

1. Irakasleen klaustroa, Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte-hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako organo gorena da. Klaustroak, halaber, zentroko hezkuntza-alderdi guztiak planifikatzeko, koordinatzeko, erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.

¹ EEPLk ez du erakunde horrek egin behar duen bilera kopuru minimorik ezarri. Nolanahi ere, zenbait erabaki hartzeko beharra ezarri dio. Eta erabaki horiek hartzeko, nahitaez bildu beharko da urtean hainbatetan. OOG, nolanahi ere, sor litezkeen batzordeen esku utz dezake eginbehar hori, batez ere, behin eta berriz errepikatzen diren auziak landu behar badira –bizikidetzako arazoak, kasu–. Bilera bat ezarri da hiruhilekoko, orientazio moduan. Halaxe egin da, batetik, klaustroek ohitura hori hartua dutelako eta, bestetik, Hezkuntza Ministerioak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako bere ikastetxeetarako ezarri dituen Dekretu Organikoetan hala agindu delako. EEPLk, nolanahi ere, urtean nahitaezko bilera bakarra egiteko aukera ematen du. Bilera horretan, ikastaroaren planeamendua eta aurreko ikasturteko txostena onetsi behar lirateke. Zuzendariak, bere aldetik, behar beste bileretarako deia egiteko eskumena du aipatu berri ditugun bi agiriak onetsi arte. Zuzendariak bere ekimenari, agindu gorenari edo OOGko kideen ehuneko jakin baten eskariei jarraiki egin dezake mintzagai ditugun bileretarako deia.

2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta zentroaren irakasle guztiek osatuko dute. Zentroko idazkaria klaustroko idazkaria ere izango da.

3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketaburua izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk eta ikasketabururik ez badago, antzinasunetik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

13. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin batuko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.

2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.

3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenaz egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

4. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administraziooko Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

14. artikulua. Klaustroaren eskumenak

Honako hauek dira irakasleen klaustroaren eginkizunak:

- a) Zentroaren ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa egitea eta onartzea, ordezkaritza-organo gorenak txostena egin ondoren. Organo horrek erabakiko du ikasketa-proiektuak bat datozen eta ikasketa programa bat datozen zentroko hezkuntza-proiektuan jasotako jarraibideekin.
- b) Irakaskuntza-jardueren programa betetzeari buruzko informazioa ematea OOGri, hark urteko memoria egin dezan.
- c) Ikasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak finkatu eta koordinatzea.
- d) Irakasleen orientazio- eta tutoretza-funtzioak planifikatu eta zuzentzea.
- e) Zentroan garatu beharreko esperimentazio edo ikerketa pedagogikoaren eremuko ekimenak sustatzea.
- f) Funtzionamendu-arauak onartzea.
- g) Irakasleen prestakuntzari dagokionez, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programari buruzko txostena egitea, 15.4 artikuluan xedatutakoaren arabera eta ordezkaritza-organo gorenak onartu aurretik.
- h) Zuzendaritza taldea aukeratzea. Zuzendaritza taldearen izendapena baliogabetzea edo bertan behera uztea proposatzea, bi herenen gehiengoak hala erabaki ondoren.

IV. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

15. artikulua. Zuzendaritza taldea

1. Pertsona bakarreko aginte-organoek Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.

2. Zuzendaritza taldeak honako eginkizun hauek izango ditu, bai eta OOGk edo klaustroak haren esku uzten dituenak ere, dagokion eskumen-eremuak:

- a) Zuzendariari laguntzea zentroko zuzendaritza eta koordinazioari buruzko irizpideak hartzen, bai eta zentroaren funtzionamenduari dagokionez garrantzi handiena duten erabakietan ere.

- b) Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa-programa prestatzea, OOG onar ditzan.
- c) Aurreko paragrafoan aipatutako programen betearazpena koordinatzea eta gainbegiratzea, eta horien betetze-mailaren berri ematea OOGri, urteko memoria onar dezan.
- d) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, OOGk eztabaida dezan.
- e) Musika-irakaskuntzako beste zentro batzuekin lankidetzaharremanak ezartzeko proposamena egitea OOGri, eta proposamenak egitea, organo horrek, egoki baderitza, Artekartza Kontseiluari bidal diezazkion, kultura- eta hezkuntza-helburuak dituzten harremanak sina ditzan beste erakunde batzuekin.
- f) Irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte bakoitzaren hasieran irakasleak beren jardueretara atxikitzeke irizpideak erabakitzea, gaia arautzen duten arauen arabera.
- g) Irakasle ez diren langileen lana koordinatzea eta gainbegiratzea.

3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitza, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.

4. Aurreko paragrafoko b) eta d) idatz-zatietako eginkizunak betetzean, OOGren batzorde iraunkorrak parte hartuko du zuzendaritza-taldean.

5. Ikastetxearen egoera eta irakasle-taldeek egiten dituzten zikloak aztertu ondoren, zuzendaritza-taldeak urteko planean sartu beharreko berrikuntza- edo prestakuntza-proiektu espezifikoek xede izango diren gaiak proposatuko ditu.

6. Zuzendaritza-taldea dokumentu honen V. tituluan jasotako prozedurari jarraikiz hautatuko da.

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE ORGANOAK

16. artikulua. Presidentea

- 1. Presidentea Kontseilu Errektoreko burua izango da, eta eztabaidak zuzenduko ditu.
- 2. Erakunde autonomoaren estatutuek ezartzen dizkieten eskumenak izango ditu.

17. artikulua. Kudeatzailea

- 1. Kudeatzailea ohiko zuzendaritza-organo gorena da, eta Kontseilu Errektorearen bileretara joango da, hitzarekin baina botorik gabe.
- 2. Erakunde autonomoaren estatutuek ezartzen dizkieten eskumenak izango ditu.

18. artikulua. Zuzendaria

1. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako zuzendaria zentroko ordezkaria izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da zentroan, eta bertako taldeko aginte-organoen burua da.

2. Honako eskuduntza eta eskumen hauek ditu:

- a) Zentroaren ordezkari ofiziala izatea.
- b) Zentroaren funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea; ekitaldi akademikoetarako eta zentroko kide anitzeko organoen bileretarako deia egitea eta horietan buru izatea.
- c) Gastuak baimentzea, zentroaren urteko kudeaketa-programaren arabera, eta ordainketak agintzea.
- d) Beste organo batzuen eskumeneak ez diren obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratazioak egitea eta/edo proposatzea, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera. Gainera, zuzendariaren eskumena ez

den kontratuetan, zuzendariak administrazio-organo eskudunari eskatu beharko dio dagozkion kontratazioak egiteko.

- e) Ziurtagiri eta agiri ofizialei oniritzia ematea.
- f) Arauak, xedapenak, proiektuak eta jarduera-programak eta zentroaren jarduerari eragiten dioten akordioak betetzen direla gainbegiratzea.
- g) Zentroari atxikitako langile guztien buru izatea.
- h) Zuzendaritza-taldearekin batera, zentroaren martxa orokorra eta sortzen diren arazoak ezagutzea eta jarraitzea, zentroan gertatzen denaren azken arduraduna den aldetik.
- i) Irakasle bakoitzari zentroko unitate bat edo batzuk esleitzea, 15.2.f) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- j) Zentroaren izenean, Administrazioarekin, gurasoen batzarrarekin, zentroko eta ikasleen guraso-elkarteekin, eta gizarte- eta kultura-erakunde eta -organismoekin harremanak izatea.
- k) Bartolome Ertzilla erakunde autonomoaren antolakuntza egokirako beharrezko langileak kudeatzea, eta behar diren ordezkapenak eskatzea.
- l) Diziplina- eta bizikidetzatza-arazoak ebaztea, erregelamendu honetan ezartzen denaren arabera, irakasleei, ikasleei eta haien familiei dagokienez.
- m) Kontseilu Errektoreak eskuordetzen dituen gainerako eskumenak.

Zuzendariak, bere eginkizunak betetzean, OOGk eta irakasleen klaustroak hartutako planen eta erabakien arabera jardun beharko du, bere eskumeneke gaitetan. Era berean, hezkuntza-komunitatea dinamizatzea dagokio, batez ere irakasleak, haien ekarpenak eta interesak bildu eta bideratzea, eta komunikazio- eta lankidetzatza-bideak bilatzea.

Zuzendariak, bere eginkizunak betetzeko, lanaldi erdia libre izango du, irakastordurik gabe.

19. artikulua. Ikasketaburua

Ikasketaburuak koordinatu eta zaindu behar du zuzenean nola gauzatzen diren ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa. Zuzendaritza-taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gain, honako hauek ere izango ditu:

- a) Jarduera akademikoak koordinatzea.
- b) Ordutegi akademikoen prestaketa gainbegiratzea eta berrikustea, zentroaren eta ikasleen beharrak zainduz, eta horiek betetzen direla zaintzea.
- c) Ebaluazio- eta orientazio-prozesuak koordinatzea.

Ikasketaburua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

Pedagogia arloaren ardura duen zuzendaritza taldeko kide gisa, Batzorde Pedagogikoa eta irakasle-taldeak ikasketaburuaren mende egongo dira. Aldian-aldean eta hala eskatzen duten guztietan, organo horien jardueren berri emango dio zuzendaritza taldeari. Arloko taldeetako arduradun eta koordinatzaileengandik informazioa jasoko du lan-planei buruz, horiek gauzatzeko moduari buruz eta taldeek hartzen dituzten erabakiei eta egiten duten lanari buruz.

Ikasketaburuak, bere eginkizunak betetzeko, lanaldi erdia libre izango du, irakastordurik gabe.

20. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gain, honako eskumen hauek izango ditu:

- a) OOGren, zentroko zuzendaritza taldearen eta klaustroaren bilkuretarako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako lehendakariak ezartzen duenaren arabera. Eta organo horien bilkuren akta egitea.

- b) Zentroaren aktak, espedienteak eta dokumentazioa zaintzea, eta haren organoen eskura jartzea. Ikastetxeko material didaktikoa zaintzea.
- c) Zentroko egintza, ebazpen eta erabaki guztiak ziurtatzea, zuzendariaren oniritziarekin, bai eta zentroaren aurrekariak, liburuak eta dokumentuak ere.

Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazioeko eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

21. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzea eta kargua uztea

Dokumentu honen V. tituluan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.

22. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeko

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketaburuak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
2. Ikasketaburua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio OOGri.
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio OOGri.
4. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordea edo ikasketaburua jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikulua honetako 2. eta 3. paragrafoetan jaso direnak ere.

IV. KAPITULUA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKOKO ORGANOA

23. artikulua. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako koordinazio pedagogikoko organismoak

Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolan honako hauek izango dira koordinazio pedagogikoko organismoak:

- a) Tutoreak
- b) Irakasle taldeak
- c) Didaktika Departamentuak
- d) Koordinazio Pedagogikorako Batzordea
- e) Prozesu-taldeak

I. ATALA. TUTOREAK.

24. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzio dira.
2. Ikasle bakoitzak bere tutorea izango du. Tutore hori zuzendaritza taldeak izendatuko du, eta, ahal dela, instrumentu nagusiko irakaslea izango da. Tutore ez diren irakasleak zeregin espezifikoaren koordinatzaile izendatu ahal izango dira, eta zuzendaritza taldeak agintzen dizkien lanak egingo dituzte.
3. Ikasketaburuak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldiari aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

25. artikulua. Tutoreen funtzioak

Tutoreek honako eskumen hauek izango dituzte:

- a) Ikasleen jarraipena egitea, haien hezkuntzan parte hartzen duten irakasleei buruzko informazioa biltzea eta ikasleen tutoretza-ekintzaren ondoriozko dokumentu akademikoak betetzea.
- b) Hezkuntza-errefortzuak eta curriculum-egokitzapenak ezartzea hala behar duten ikasleentzat, eta horiek praktikan jartzen direla zaintzea.
- c) Hezkuntzan esku hartzen duten irakasleei dei egitea beren jarduna koordinatzeko eta sortzen diren arazoak konpontzeko.
- d) Ikasketa Burutzak deialdia egin ondoren, ebaluazio-saioak antolatzea eta horietan buru izatea.
- e) Ikasleen hutsegiteak eta diziplina kontrolatzea eta ikasketa-burutzari dagokion abisua ematea, familiak horren berri izan dezan.
- f) Irakasleei eta haien legezko tutoreei, ikasturte bakoitzaren hasieran, helburuen, eskola-programen eta ebaluazio-irizpideen berri ematea; eta ikasturtean zehar, hezkuntza-prozesuaren eta ebaluazioen berri ematea.
- g) Irakasleei taldean integratzen laguntzea eta zentroko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- h) Irakasleei orientabideak eta aholkuak ematea beren aukera akademiko eta profesionalei buruz.
- i) Ikasleen eskaerak eta kezkak bideratzea eta gainerako irakasleen eta zuzendaritza-taldearen aurrean bitartekotza egitea sortzen diren arazoetan.

Ikasleen legezko tutoreei arreta emateko, tutore bakoitzak aurrez aurreko tutoretza bat egingo du, gutxienez, ikasturte bakoitzean. Gainera, beharrezkotzat jotzen duenean, dei egin ahal izango die ikaslearen martxaren berri emateko. Bestalde, legezko tutoreek edozein unetan eskatu ahal izango dute elkarriketa bat, betiere behar besteko aurrerapenarekin, tutoreak une egokia proposa dezan.

II. ATALA. IRAKASLE-TALDEAK

26. artikulua. Irakasle-taldearen osaera eta araubidea

1. Irakasle-taldea ikasle berari irakasten dioten irakasle guztiek osatuko dute, eta tutoreak koordinatuko du.
2. Irakasle-taldea ebaluazio-saioetan bilduko da ikasleen ebaluazioa egiteko, betiere ikasketa-buruak deitzen badio, tutoreak proposatuta, hala badagokio.

27. artikulua. Irakasle-taldearen funtzioak

Honako hauek dira irakasle-taldearen funtzioak:

- a) Ikasleen ebaluazioa eta jarraipen orokorra egitea, eta ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea, ebaluazioari buruzko legeria espezifikoak ezarritakoaren arabera. Horretarako, irakasle bakoitzak informazioa ikasleen asteko erregistro-koadernoan jasoko du.
- b) Ikasleak zentroan hobeto integratzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
- c) Sortzen diren gatazkak modu koordinatuan tratatzea eta horiek konpontzeko neurri egokiak ezartzea.
- d) Irakasleei proposatzen zaizkien irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak koordinatzen saiatzea.
- e) Ikasle bakoitzaren gurasoei edo tutoreei, hala badagokio, ematen zaien informazioa ezagutzea eta informazio hori lantzen parte hartzea.

III. ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK

28. artikulua. Didaktika-departamentuen ezaugarriak eta osaera

1. Didaktika-departamentuak lantaldeak dira, eta, departamentu-buruaren zuzendaritzapean, arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleen arteko edo, hala badagokio, antzeko arloetako edo ikasgaietako irakasleen arteko koordinazioa bermatzea dute helburu. Talde horien lana eta egiten duten lana kide guztien erantzukizuna da.

2. Zentroan eskola-orduren bat ematen duten irakasle guztiek didaktika-departamenturen bateko kide izan beharko dute.
3. Irakasle batek ere ezin izango du didaktika-departamentu bat baino gehiagotako kide izan. Irakasle batek bi sail didaktikori edo gehiagori dagozkien irakasgaiak ematen baditu, ordu gehien ematen dituen irakasgaiari dagokion sailekoa izango da; hala ere, ematen dituen beste irakasgaien ardura duten beste sailen bileretara joan ahal izango da, eta lan eta erabakietan parte hartu ahal izango du.
4. Zuzendariak, koordinazio pedagogikorako batzordeak proposatuta, sail batean atxikiko ditu indarrean dagoen araudian esleitze-lehentasuna jasota ez duten irakasleak.

29. artikulua. Didaktika-departamentuen funtzioak eta eskumenak

1. Irakasle guztiek astean gutxienez ordubete gorde beharko dute departamentuko kide guztiak bildu ahal izateko. Ordu hori ikastetxearen funtzionamendu-ordutegiaren barruan jaso beharko da, departamentuko buruak beharrezkotzat jotzen duenean edo kideen heren batek hala eskatzen duenean dei ditzakeen ezohiko bilerei kalterik egin gabe.
2. Sailak ikasturtearen hasieran bildu beharko dira, hasitako ikasturterako baterako lan-plana egiteko, eta ikasturtearen amaieran estatistikak eta ikastaroaren memoria egiteko, planifikatutako helburuak lortu diren aztertzeko, hobekuntza-proposamen berriak egiteko eta hurrengo ikasturterako beharrezkotzat jotzen diren berrikuntzak sartzeko.
3. Bilera guztietan egingo da arauzko akta, eta, bertan, gutxienez, honako hauek adieraziko dira berariaz: bertaratutakoak eta bertaratu ez direnak, gai-zerrenda eta hartutako erabakiak. Akta horiek modu digitalean idatzi beharko dira, eta Saileko kideei eta Ikasketa Burutzari bidali beharko zaizkie, zaintzeko eta kide bakarreko eta kide anitzeko organoen esku jartzeko.
4. Sailen programazioek honako hauek jaso beharko dituzte: helburuak, edukiak, metodologia, ebaluazio-irizpideak, kalifikazio-irizpideak, gutxieneko edukiak eta, etengabeko ebaluazioa galduz gero, probak.
5. Ikasleen probak, ariketak edo azterketak gorde beharko dira, Hezkuntza Sailburuordetzaren urteko ebazpenaren "Kalifikazioak erreklamatzeko eskubideari" buruzko atalean eta Euskadiko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 9. artikuluan (2008-12-16ko EHAA) zehaztutako baldintzetan.
6. Didaktika departamentuen funtsezko zereginak eta eskumenak honako hauek izango dira:
 - a) Departamentuko espezialitate eta irakasgaien programazioa egitea, departamentuko buruaren koordinazio eta zuzendaritzapean.
 - b) Saileko espezialitate eta irakasgaiei dagozkien programazioen arteko koherentzia ziurtatzea.
 - c) Ebaluazio-irizpideak eta ikasleei eskatu beharreko gutxieneko edukiak zehaztea.
 - d) Saileko irakaskuntzen garapen artistiko handiagoa ahalbidetuko duten jarduera osagarriak antolatzea eta egitea.
 - e) Saileko irakasgai eta espezialitateen programazioaren garapena ebaluatzea.
 - f) Ikasturtearen amaieran, programazioaren garapena eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituen memoria egitea, sailak lortutako emaitzetatik ateratako ondorioak barne.
 - g) Zentroko zuzendaritzak ikastetxearen hezkuntza- eta kudeaketa-jardueraren plangintzarekin, antolaketarekin, praktikan jartzearekin eta ebaluazioarekin lotuta proposatutako beste jarduera batzuk.

30. artikulua. Didaktika departamentuen izendapena

1. Antolaketa eta koordinazio pedagogikorako, zentroak honako didaktika-sail hauek izango ditu:
 - a) Hari-instrumentuen departamentua: biolina, biola, biolontxelo eta kontrabaxua.

- b) Haize-instrumentuen departamentua: txistua, zeharkako txirula, oboea, klarinetea, saxofoia, tronpeta eta tronboia.
- c) Piano departamentua.
- d) Pianista erreperitorista departamentua.
- e) Lengoia Musikaleko departamentua.
- f) Abesbatza eta kantu departamentua.
- g) Analisi, harmonia eta musikaren historiako departamentua.
- h) Musika modernoko / Jazz departamentua.
- i) Orkestra, Banda eta Ganbara Musikako departamentua.

2. Aurreko zerrendan sartzen ez diren espezialitate edo irakasgaietan, zuzendariak erabakiko du dagokion sailera atxikitzea, bere kidetasuna edo eraginkortasun handiagoa kontuan hartuta.

3. Departamentu bat ezin izango du irakasle bakar batek osatu, eta, kasu horretan, irakasle hori zuzenean Koordinazio Pedagogikorako Batzordeko kide izango da.

31. artikulua. Didaktika-departamentuetako buruen izendapena eta eskumenak

1. Didaktika-departamentuetako buruak zuzendariak izendatuko ditu urtero, departamentuek proposatuta. Sail batek izendapen-proposamenik egiten ez badu, Zuzendaritzak sail horretako burutza izendatuko du, ekitate-irizpideak kontuan hartuta.

2. Behar bezala funtziona dezan, departamentuek mintegiko buruaren errelebo-prozesua adostuko dute, honako premisa hauen arabera:

- a) Departamentuko burutza gutxienez 2 urte egon behar da, bere eginkizunak behar bezala ezagutu eta garatzeko.
- b) Saileko irakasle guztiek izan beharko dute buruzagitza betetzeko hautagai, baina, sailaren arabera, betebeharrak horretatik salbuetsi ahaliko dira % 20ko lanaldia edo txikiagoa duten irakasleak.

3. Salbuespen gisa, ezin izango da inola ere saileko buru izendatu pertsona bakarreko organoko kargua duena.

4. Honako eskumen hauek ditu:

- a) Sailaren jardura akademikoa zuzendu eta koordinatzea, sailaren ebaluazio-asteak antolatu eta koordinatzea barne, Ikasketa Burutzak proposatu ondoren.
- b) Sailaren bilerak deitzea eta bilera horien buru izatea.
- c) Ikasle-taldearen programazioen garapenaren aldizkako jarraipena egitea, eta programazioa betetzen dela zaintzea, edukiei eta gutxieneko eskakizun-mailei dagokienez.
- d) Bilera bakoitzaren akta egitea.
- e) Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea beste zentro edo erakunde batzuekiko harremanak sustatzeko, prestakuntza-jardura osagarriak antolatzeko.
- f) Ikasturtea amaitzean, memoria idazteaz arduratzea.
- g) Zentroko hezkuntza- eta kudeaketa-jardueraren plangintzarekin eta antolamenduekin lotuta zuzendaritza-taldeak proposatzen dituen beste jardura batzuetan laguntzea.
- h) Bere saileko irakasle berriei harrera egiteaz arduratzea, Ikasketa Burutzarekin batera, ahalik eta azkarren zentroko lan-antolamendu eta -dinamikan integratzeko.

IV. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA

32. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera

1. Zuzendaria, ikasketaburua eta departamentu-buruek osatuko dute Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, zentroko zuzendaria buru izango duelarik. Departamentu-bururik gazteena izango da mintzagai dugun Batzordeko idazkari.

2. Gainera, batzorde horretako kide izan ahalko dira zuzendaritza taldearen iritziz aholkularitza- eta lankidetz-eginkizunak bete ditzaketen beste irakasle batzuk.

33. artikulua. Koordinazio pedagogikorako batzordearen funtzionamendua eta eskumenak

1. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea irakasleen klaustroko batzordea da. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen funtzio nagusia ikasketa-proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da.

2. Gutxienez hilean behin bilduko da.

3. Koordinazio pedagogikorako batzordearen erabakiek izaera operatiboa izan beharko dute zentroko gobernu organoek hartutako erabakiak praktikan jartzeko.

4. Egoki deritzotenean, organo horiei proposamenak egin ahal izango dizkiete, eztabaidatu eta erabaki ditzaten.

5. Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zaintzapean egonik:

- a) Ikasketa-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentzarau orokorrak ezartzea.
- b) Ikasketa-proiektuen lanketa eta berrikuspina gainbegiratzea, bai eta horiek idazteko eta, halakorik bada, aldatzeko ardura hartzea eta koordinatzea ere, eta proiektu horiek zentroaren hezkuntza-proiektuarekin koherenteak direla ziurtatzea.
- c) Ikasketa-proiektuan jasotako sailen programazio didaktikoak eta tutoretza-plana egiteko eta berrikusteko jarraibide orokorrak ezartzea.
- d) Klaustroari ikasketa-proiektuak proposatzea, onar ditzan.
- e) Ikasketa-proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.
- f) Azterketen eta ebaluazio-saioen egutegia adostea, ikasketaburuak proposatuta.
- g) Irakasleen klaustroari ikasketa-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza-alderdiak eta urteko programazio orokorra, zentroaren eskola-errendimenduaren bilakaera eta irakaskuntza-prozesua ebaluatzeko plana proposatzea.
- h) Zentroko jarduera eta proiektu guztien ebaluazioa sustatzea, gobernu-organoen edo hezkuntza-administrazioaren ekimenez egiten diren ebaluazioetan laguntzea, eta, ebaluazio horien ondorioz beharrezkotzat jotzen bada, hobekuntza-planak bultzatzea.
- i) Hautazko irakasgaien proposamenak onartzea.
- j) Zentroko jarduerak koordinatzen laguntzea.
- k) Zuzendaritza taldeari irakasleen proposamenak helaraztea.

V. ATALA. PROZESU-TALDEAK

34. artikulua. Prozesuen araberako kudeaketa

1. Prozesuen araberako kudeaketa Erakunde Autonomoan ezartzen den kalitate-politika bat da, kudeaketaren efizientzia helburu duena, eta Zentroaren Misioa, Ikuspegia eta Balioak betetzeko tresna gisa erabiltzen dena.

2. Kudeatzailea da ezartzeaz arduratzen dena.

35. artikulua. Prozesu-taldeen izaera, funtzioak eta osaera

1. Honako hauek dira prozesu-taldeak eta dagokien jarduera-eremua:

- a) Estrategia. Erakundearen misioa betetzea eta ikuspegia lortzea ahalbidetuko duten ikastetxeko tresna estrategikoak ezartzea eta kudeatzea da honen eginkizuna.
 - b) Pertsonen kudeaketa. Erakundean lan egiten duten pertsonak gaitzea eta inplikatzeko du helburu, pertsona horiek gogobetetzea eta herritarrentzako zerbitzuak hobetzeko.
 - c) Irakaskuntza-ikaskuntza. Bere helburua ikasleak honako hauetan gaitzea da: ezagutu, ulertu, jendearen aurrean jo, baloratu, disfrutatu eta musika sortu, bakoitzari bere beharretara, gaitasunetara eta interesetara egokitutako tresnak eskainiz eta zentroko ikasketa-proiektuak ezarritako jarraibideak aplikatuz.
 - d) Bezeroen arreta. Honen eginkizuna da ikastetxeko jardueren berri emateko ekintzak egitea; ikasleei, familiei eta bezeroei informazioa helaraztea; eta ikasle berriak erakartzeko jarduerak egitea.
 - e) Musika Kultura zabaltzea. Honen egitekoa honako hau da: hainbat estilotako kontzertu, entzunaldi eta ekitaldiak antolatzea, hainbat talde eta interpretatzaileekin, Durango eta haren ingurunean kultura aberasten laguntzeko eta publikoa eta ikasleak asebetetzeko.
 - f) Baliabideak. Bere eginkizuna instalazioak egoera onean mantentzea eta kontserbatzea da, erabiltzaileentzat, herritarrentzat eta bertan lan egiten duten pertsonentzat, betiere segurtasuna eta irisgarritasuna kontuan hartuta.
2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen kide berberak osatuko dute. Gainera, Zuzendaritza taldearen iritziz aholkularitza- eta lankidetzak-eginkizunak bete ditzaketen beste irakasle batzuek ere parte hartu ahal izango dute prozesu honetan.
3. Prozesu-taldeak zehaztuko du irakasle bakoitza prozesu jakin batera atxikitzea, irizpide hauen arabera:
- a) Pertsonaren profila eta profil horrek zereginarekin duen egokitasuna.
 - b) Zeregin horri dagozkion ezagutzak edo hasierako prestakuntza izatea.
 - c) Norberaren eta zeregin horiek eskatzen dituzten erantzukizunen arteko kidetasuna.
 - d) Denbora/ordu eskuragarritasuna.
4. Zuzendaritzaren iritziz, irakasle guztiek ez dute nahitaez egon beharko prozesu-talderen batean, lan-kargaren edo beste zeregin batzuen arabera.
5. Prozesu taldeak urtero berrikusiko du pertsona bat zeregin bati atxikitzea, eta interesdunak zuzendaritzarekin kontrastatuko du.

V. KAPITULUA. IKASTETXEKO JARDUERA PLANIFIKATZEKO ETA ANTOLATZEKO TRESNAK

36. artikulua. Ikastetxeko jarduera planifikatzeko eta antolatzeko tresnak

Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak, bere autonomiaz baliatuz, bere jarduera antolatzeko tresna hauek onartu eta gauzatuko ditu:

- a) Ikastetxeko hezkuntza-proiektua
- b) Ikastetxeko ikasketa-proiektua
- c) Antolaketa eta Jarduera Araudia
- d) Plan Estrategikoa
- e) Urteko plana
- f) Urteko memoria

37. artikulua. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP)

1. IHP dokumentu pedagogikoa da, hezkuntza-komunitateak egin eta onartua. Ikastetxearen nortasun-ezaugarriak zerrendatzen eta definitzen ditu, eta lortu beharreko helburuak eta ikastetxearen antolaketa- eta funtzio-egitura adierazten du.
2. Lehentasunak ezartzen laguntzen duen dokumentua da, eta Urteko Planean eta irakaskuntza-jardueraren programazioetan eraginkor bihurtu behar dira, ikasleengana iritsi eta ebaluatu ahal izateko. Ezin da inoiz konpromiso bukatutzat eta aldaezintzat hartu.
3. Euskal Eskola Publikoaren Legeak irakasle taldeak eta irakasleak IHPri atxikitza behartzen ditu, baina proiektu horiek errespetatuz, irakasleek eskola-jarduerak lantzeko eta programatzeko egokitza jotzen dituzten erabakiak hartu ahal izango dituzte. Irakasleen banakako erabaki horiek beti bete beharko dituzte IHPk ezarritako jarraibideak.

38. artikulua. Ikastetxeko Ikasketa Proiektua (IIP)

1. Ikastetxearen IIPk zehazten du bere prestakuntza-eskaintza eta eskaintza akademikoa. Bertan, irakaskuntza- eta metodologia-jardura definitzen dira, bai eta hainbat eremutarako orientazio zehatzak ere (helburuak, edukia, metodologia, ebaluazio-irizpideak...).
2. Irakasleen Klaustroak egin eta onartu behar ditu. Hark ekintza didaktikoaren eta IHPren arteko koherentzia zainduko du. IIPk nolabaiteko malgutasuna eta balio-aniztasuna izan behar ditu, bere burua berritu ahal izateko.

39. artikulua. Antolaketa eta Jarduera Araudia (AJA)

1. AJA ikastetxe bakoitzak bere autonomiaz egindako dokumentua da. Bertan, ikastetxearen osaera, eskumenak eta organoak hautatzeko modua azaltzen dira, bai eta ikastetxeak behar bezala funtziona dezan eta jardura akademikoak eta administrazio-araubidea eta araubide ekonomikoa behar bezala garatzen direla bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren xedapen guztiak ere.
2. Gutxienez, honako hauek jasoko ditu: ikastetxearen antolaketa-egituraren eta funtzionamenduaren definizioa, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko bizikidetzat eta errespetua bermatuko duten arauak, bulegoen eta instalazioen erabilera egokia eta ebaluazioen erreklamazio-araubidea.
3. OOGri dagokio hura onartzea eta aldatzea, eta Kontseilu Errektoreari igorriko zaio, berrets dezan, hark erabaki dezan bat datorren eragina izan dezaketen gaiak arautzen dituzten arau-xedapenekin.

40. artikulua. Plan Estrategikoa (PE)

1. Plan estrategikoa ikastetxeak hainbat urtetan jarraituko duen estrategiaren zehaztapena da. Plan horrek honako hauek jasotzen ditu: MIB, aldi horretarako helburu estrategikoak eta lortu nahi diren emaitzak.
2. Estrategia hori lantzeko, eskolak sistema osoak ematen dion beharrezko informazio estrategikoa izan behar du, eta bere langile guztien eta Kontseilu Errektorearen Hausnarketa Parte-hartzaileako prozesua ahalbidetu behar du. Hau da, strategiaren definizioa ekintza kolektiboa da. Era berean, Estrategia hori, egikaritzeko modukoa eta eraginkorra izateko, Urteko Planetan hedatzen eta zehazten da.
3. Estrategia zentroari lotutako interes-talde guztiei jakinarazten zaie: familiei, Kontseilu Errektoreari, bezeroei eta hornitzaileei.

41. artikulua. Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)

1. IUP ikastetxeko jardueren plangintza, antolaketa eta kudeaketa jasotzen dituen tresna da. Plan Estrategikoaren urteko hedapena da, eta Zuzendaritza Taldea arduratzen da planaren lanketa koordinatzeaz.
2. Plan hori ikasturte hasieran prestatu eta onartu beharko du OOGk, hargatik eragotzi gabe Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak klaustroari irakaskuntza-jardueren programaren inguruan esleitzen dizkion eskumenak.

42. artikulua. Urteko Memoria (UM)

1. UM IUPren analisiaren eta betetze-mailaren emaitza da, bai eta lortutako eskola-emaitzena ere.
2. UM ikasturtea amaitzean egingo da, eta Zuzendaritza Taldeak koordinatuko du haren lanketa.

3. IUPren betetze-maila eta lortutako emaitza akademikoak aztertuta, ikastetxeak bere autoebaluazioa egingo du, ondorioak aterako ditu eta hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak egingo ditu, eta lehentasunak ezarriko ditu, zeinak hurrengo IUPean lortu beharreko helburutzat hartuko baitira.

4. UM OOGk onartuko du.

VI. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

OOGn hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du. Horrez gain, ikasleek eta ikasleen gurasoek elkarrekin eta organo berezien bidez hartu ahal izango dute parte ikastetxearen kudeaketan.

I. ATALA. IKASLEEN PARTAIDETZA-ORGANOAK

43. artikulua. Ikasleen Biltzarra

1. Bartolome Ertzilla Musika Eskolako eta Kontserbatorioko ikasleen biltzarra ikasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko organo berezia da. Ikastetxeko ikasle guztiek osatuko dute.

2. Batzar horrek barne-organoa bat eduki ahal izango du bilerak prestatzeko eta erabakiak nola betetzen diren ikuskatzeko. Era berean, ikasleen batzarrak ordezkari izango du ikastetxeko OOGn.

3. Ikastetxeko Zuzendaritzak edo OOGko ordezkariak deituko dute, kideen heren batek hala eskatuta.

4. Honako funtzio hauek ditu:

- a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko eta eskola-jarduera antolatzeke proposamenak Zuzendaritza Taldeari aurkeztea.
- b) OOGko ikasleen ordezkariak aholkuak eta laguntza ematea gai-zerrendako puntuei, landutako gaiei eta bertan hartutako erabakiei buruz.
- c) OOGko ikasleen ordezkarien informazioa jasotzea gai-zerrendako puntuei, landutako gaiei eta bertan hartutako erabakiei buruz.
- d) OOGrentzat txostenak egitea, bere ekimenez edo hark eskatuta.
- e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, bere eskumenen esparruan.
- f) Ikasleei Biltzarraren jardueraren berri ematea.
- g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak garatzeko proposamenak egitea.
- h) Ikasleen Biltzarrean ikasleei berriaz eragiten dien beste edozein jardura edo erabakiren berri ematea, bai eta zuzenean eragiten dieten gaietan OOGn hartutako erabakien berri ematea ere.
- i) Ikasleen Biltzarrak beren eskumeneko gaiei buruz onartutako proposamenak OOGri helaraztea.
- j) OOGren barruan dauden batzordeetan parte hartzea.

44. artikulua. Ikasle-elkarteak

1. Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak egoitza soziala emango die legez eraturik dauden ikasle-elkarteei, eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzea erraztuko die.

2. Zuzendariari dagokio legez eraturik dauden elkarrekin modu iraunkorrean erabiliko dituzten lokal zehatzak zehaztea, bai eta, elkarrekin ordezkariak hala eskatuz gero, espazio komunak erabiltzeko baimena ematea ere.

3. Ez da, inola ere, legez eraturik dauden elkarrekin diskriminatuko, OOGko ordezkarietako baten zuzeneko proposamenari dagokionez, ordezkariak handiena duen ikasle-elkartearen alde erregelamendu bidez xedatutakoari kalterik egin gabe.

4. Ikastetxeko gobernu-organismoek ez dituzte ikasleak behartuko legez eraturik dauden elkartetan izena ematera edo ez ematera, ezta horiek ekonomikoki laguntzera ere.

5. Ikasle-elkarteek ikastetxeko instalazioak erabili ahal izango dituzte, zuzendariak ezartzen dituen baldintzetan.

6. Honako funtzio hauek ditu:

- a) OOGri IHP eta urteko programazio orokorra egiteko edo aldatzeko proposamenak aurkeztea.
- b) OOGri ikastetxearen inguruan egokitzen jotzen dituen alderdien berri ematea.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei beren jardueren berri ematea.
- d) OOGren informazioa jasotzea bertan landutako gaiei buruz, eta bilera egin aurretik kontseilu horren gai-zerrenda jasotzea, proposamenak egin ahal izateko.
- e) OOGrentzat txostenak egitea, bere ekimenez edo hark eskatuta.
- f) AJA aldatzeko proposamenak egitea.
- g) Jarduera osagarriak egiteko proposamenak egitea.
- h) Emaiza akademiko globalak eta ikastetxeak horiei buruz egiten duen balorazioa ezagutzea.
- i) IHPren, IIPen eta horien aldaketen ale bat jasotzea.
- j) Hezkuntza-komunitateko kideen arteko lankidetzat sustatzea.

II. ATALA. GURASOEN PARTAIDETZA-ORGANOAK

45. artikulua. Gurasoen Biltzarra

1. Bartolome Ertzilla Musika Eskolako eta Kontserbatorioko gurasoen biltzarra gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko organo berezia da. Ikasleen guraso eta tutore guztiek osatuko dute.
2. Batzar horrek barne-organo bat eduki ahal izango du bilerak prestatzeko eta erabakiak nola betetzen diren ikuskatzeko. Era berean, guraso eta tutoreen batzarrak ordezkartza izango du ikastetxeko OOGn.
3. Ikastetxeko Zuzendaritzak edo OOGko ordezkariak deituko dute, kideen heren batek hala eskatuta.
4. Honako hauek dira gurasoen biltzarren eginkizunak:

- a) Egoki iritzitako proposamenak egitea ikastetxeko gainerako organoei, organo horien eskumeneko gaiei buruz, irakaskuntza-jardueren programa eta eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa gauzatzeari buruzko balorazioa barne.
- b) Zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin harremanetan egotea, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortzeko.
- c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxeko bizitzan aktiboki parte har dezaten.
- d) Kide anitzeko organoetako gurasoen ordezkariak egindako kudeaketaren berri emateko eskatzea bileretan.
- e) Funtzionamendu-arauak onartzea.

46. artikulua. Guraso-elkarteak

1. Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak egoitza soziala emango die legez eraturik dauden guraso-elkarteei, eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzea erraztuko die.
2. Zuzendariari dagokio legez eraturikotako elkarrekin modu iraunkorrean erabiliko dituzten lokal zehatzak zehaztea, bai eta, elkarrekin ordezkariak hala eskatuz gero, espazio komunak erabiltzeko baimena ematea ere.
3. Ez da, inola ere, legez eraturikotako elkarrekin diskriminatuko, OOGko ordezkarietako baten zuzeneko proposamenari dagokionez, ordezkartza handiena duen guraso-elkartearen alde erregelamendu bidez xedatutakoari kalterik egin gabe.
4. Ikastetxeko gobernu-organismoek ez dituzte gurasoak behartuko legez eraturikotako edozein elkartetan izena ematera edo ez ematera, ezta horiek ekonomikoki laguntzera ere.

5. Gurasoen elkarrekin ikastetxeko instalazioak erabili ahal izango dituzte, zuzendariak ezartzen dituen baldintzetan.

6. Honako funtzio hauek ditu:

- a) OOGri IHP eta urteko programazio orokorra egiteko edo aldatzeko proposamenak aurkeztea.
- b) OOGri ikastetxearen inguruan egokitzen jotzen dituen alderdien berri ematea.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei beren jardueren berri ematea.
- d) OOGren informazioa jasotzea bertan landutako gaien buruz, eta bilera egin aurretik kontseilu horren gai-zerrenda jasotzea, proposamenak egin ahal izateko.
- e) OOGrentzat txostenak egitea, bere ekimenez edo hark eskatuta.
- f) AJA aldatzeko proposamenak egitea.
- g) Jarduera osagarriak egiteko proposamenak egitea.
- h) Emaita akademiko globalak eta ikastetxeak horiei buruz egiten duen balorazioa ezagutzea.
- i) IHPren, ICPen eta horien aldaketen ale bat jasotzea.
- j) Hezkuntza-komunitateko kideen arteko lankidetzaren sustatzea.

II. TITULUA. BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. OINARRI OROKORRAK

47. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolan, bizikidetza bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.

48. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

1. Ikasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte. Hona hemen, laburbilduta, eskubide horiek:

- a) Hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea.
- b) Ikasle adingabeek berehala arreta jasotzeko duten eskubidea.
- c) Ikasle adingabeek ikastetxearen babesa jasotzeko duten eskubidea.
- d) Errendimendu akademikoa objektiboki baloratzeko eskubidea.
- e) Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.
- f) Segurtasun, nortasun eta duintasun pertsonalerako eskubidea.
- g) Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.
- h) Biltzeko eskubidea ikastetxeetan.
- i) Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.
- j) Ikasleen elkartzeko eskubidea.
- k) Parte hartzeko eskubidea.
- l) Informaziorako eskubidea.
- m) Aukera-berdintasunerako eskubidea.
- n) Gizarte-babeserako eskubidea.

2. Ikasle guztiek dute, beren adinak ahalbidetzen dien neurrian, ematen zaizkien eskubideak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra.

3. Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindu.

49. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea

Ikasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak izango dituzte. Hona hemen, laburbilduta, betebeharrak horiek:

- a) Ikasteko betebeharra.
- b) Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.
- c) Bertaratzeko betebeharra.
- d) Bizikidetza sustatzeko betebeharra.
- e) Kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.
- f) Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

- g) Instalazioak errespetatzeko betebeharra.
- h) Materiala eta instrumentuak errespetatzeko betebeharra.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

50. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

51. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketaburua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.

2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzeman ez gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezkeen.

52. artikulua. Ohorea, intimitatea eta norbere irudia babesteko eskubidea

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ohorea, intimitatea eta irudia babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako aginte-organismoek, tutoreek eta irakasle guztiek ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubide hori babestu beharko dute. Zuzendaritza taldeak grabazio-bitartekoak, telefono mugikorrak eta, oro har, teknologia berriak erabiltzeko arauak proposatuko dizkio OOGri, hark onar ditzan. Arau horiek ez dute inola ere onartuko klaseetan grabazioak edo argazkiak egitea edo telefono mugikorrak erabiltzea.

2. Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola-barrutian– aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da, gainera, hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

3. Irakasleek bideo- eta/edo audio-grabazioak egin ahal izango dituzte ikasgelan eta ikastetxeko eszenatokian (ekitaldi-aretoan), helburu pedagogikoarekin, ikasleen eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen autoebaluazioa egiteko. Entzunaldien erregistro horrek ikasleak ebaluatzeko tresna gisa balioko du.

53. artikulua. Biltzeko eskubidea

1. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako aginte-organismoek ziurtatuko dute biltzeko eskubidea –Legeak ikasleei aitortzen diena– modu eraginkorrean gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zaindiko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza-helburuarekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da.

2. Ikasleak zentroko zuzendaritzak adierazitako ikasgela batean bildu ahal izango dira ikasketei buruzko gaiak lantzeko, eskolarik galdu gabe, beharrezkotzat jotzen badute.

54. artikulua. Bertaratze-hutsegite kolektiboak arautzea

Biltzeko eskubidea betetze aldera, biltzeko eskubidea betetzearen ondorioz DBHko hirugarren mailatik gorako ikasle talde bat derrigorrezko eskoletara edo bestelako jardueretara ez-bertaratzea ez da jokabide okertzat hartuko. Gertakari horiek ezingo dira zuzendu, betiere, jarraian aipatuko duguna betetzen bada:

- a) Eskoletara ez bertaratzeko proposamena ikastetxeko ikasleen biltzarrak onartu beharko du hasiera batean, bere ekimenez edota ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztien edo lege onartutako

ikasle-elkarteetako ordezkarien % 5ak, gutxienez, hala eskatzen badu. Aldez aurretik, honako alderdi hauek eztabaidatu beharko dira, besteak beste:

- a. Deialdiaren hezkuntza- edo prestakuntza-helburua.
 - b. Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.
 - c. Ikasle guztiek haren gain hausnartzeko duten denbora.
 - d. Aurretik egindako beste deialdiak edo aurrerantzean egingo direnak.
- b) Proposamena Ikasleen Biltzarrek onesten badu, deialdia idatziko da, artikulua honen a) atalean adierazitako alderdiekin bat arrazoitua, eta deialdia egiten dutenak zeintzuk diren adieraziz. Horrez gain, orduak eta programatutako jarduerak adieraziko dira. Deialdia bilera egin baino bi lanegun lehenago egingo da gutxienez, deialdia egiten dutenek premia eragiten duten arrazoiak ikasketaburuaren aurrean aurkezten dituzten kasuan izan ezik.
 - c) Deialdia ikastetxeko zuzendaritzari helaraziko zaio eta xede horretara zuzendutako lekuetan jarriko da. Bozketa amaitu bitartean, adierazitako lekuetan ikusgai egon beharko du.
 - d) Ikasleen Biltzarrek deialdiaren berri emango die ikasle guztiei, baita deialdia ikusgai dagoen tokiaren berri ere. Deialdia ezin izango da ikasgeletan jarri eta ezin izango da ikaslerik behartu deialdiaren berri izatera. Era berean, bozketa non eta noiz egingo den jakinaraziko da. Zuzendariak berariaz baimendu ezean, bozketa ezin izango da ikasgeletan egin.
 - e) Ikasketaburuak bozketa egiten den jolas-orduaren aurreko eta ondorengo eskolak murriztea erabaki dezake.
 - f) Bozketa ikasketaburuak edo hark eskuordetzen duen irakasleak zainduko du. Mahai bakoitzean Ikasleen Biltzarreko bi ordezkari egongo dira gutxienez; batek NANaren edo ikastetxeko agiriaren bidez ikasleen nortasuna egiaztatuko du, eta besteak, ikasleen boto-txartela hartuko du.
 - g) Erabiliko diren boto-txarteletan, (BAI/SÍ) eta (EZ/NO) aukerak azalduko dira, bakoitza laukitxo batean. Hautesleek bi aukeretako baten alde egin beharko dute. Hartara, beraiek hautaturiko aukeraren laukitxoan ixa bat egin beharko dute tintaz edo bolalumaz. Bi laukitxoetan marka bana duten boto-txartelak baliogabeak izango dira, baita norberak bete ez duen botoa edo beste modu batera betetako botoa ere. Markadun laukitxorik ez duten botoak eta bestelako daturik ez dutenak boto zuritzat hartuko dira.
 - h) Bozketa amaitu ondoren, mahai bakoitzean botoak zenbatuko dira da. Emandako botoen batura, boto baliogabeak eta zuriak barne, ikastetxeko ikasle kopuruaren erdia gehi bateko *quorumer*a iristen ez bada, botazioak ez du baliorik izango, eta ezin izango da deialdi berdinerako beste botaziorik egin. Beraz, deialdia besterik gabe baztertuko da.
 - i) Bozketaren emaitza baliozko izan dadin, quorum hau beharrezkoa da: botoen erdiak gehi bat. Quorum nahikoaz ikasketaburuaren proposamena onartu bada, azken horrek ikasleek hartutako erabakia deialdiarekin batera jarriko du ikusgai. Emaitza ez da inoiz loteslea izango eta ikasleek eskolara joateko duten eskubidea gauza dezakete. Nolanahi ere, deialdi onetsiari jarraiki eskoletara ez agertzea ez da jokabide okertzat hartuko eta ez da egintza hori zuzentzeko neurririk ezarriko.
 - j) Ikastetxeak eskolak emango ditu, bertaratu ez den ikasle kopurua edozein izanda ere.

55. artikulua. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei aitortzen dien adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko:

- a) Ikasleen ordezkariak eskatuta, iragarki-taulak jarriko dira hezkuntza-komunitate osoak ikusteko moduko lekuetan.

b) Nolanahi ere, horretarako izendatutako lekuetan jartzen den informazio orok argi eta garbi adierazi beharko du nor den informazio horren ardura duen pertsona, erakundea, elkarte edo taldea.

c) Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.

2. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

56. artikulua. Oinarri orokorrak

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak ikasleei ezartzen dizkien betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide desegokia da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

2. Betebehar horiek betetzen ez badira, hura ikusten duen irakasleak berehala zuzendu beharko du. Nolanahi ere, ikasleari agindu beharko dio ikasketa-burutzan edo une horretan ikastetxean dagoen hezkuntza-agintaritzan aurkezteko, ez-betetze horrek hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak baliatzea eragozten badu edo zuzenean haien aurka egiten badu.

57. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

1. 201/2008 Dekretuan xedatutakoaren arabera desegokiak, bizikidetzaren kontrakoak edo hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak soilik zuzendu ahal izango dira, eta lehenbailehen zuzendu beharko dira.

2. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, zuzendu beharreko jokabidearen beharrezko ondorio gisa har daitezen.

58. artikulua. Jokabide desegokiak

1. Jokabide desegokitza hartuko dira arestian aipatutako Dekretuaren 30. artikuluan aipatzen direnak.

2. Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolan, arestian aipatutako Dekretuan jaso denaren arabera, une horretan ikaslearen zaintzapean dagoen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desegokiak.

3. Ikasketaburuak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

59. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak dira Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak.

2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

60. artikulua. Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak dira Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak.

2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

61. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larriak eragiten dizkietenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da, eta, betiere, gatazka ebazteko, haren III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

62. artikulua. Oinarri orokorrak

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

63. artikulua. Publikotasuna

1. Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek eta haien legezko ordezkariak ikastetxeko ikasketa-proiektua eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkarien eskura egongo den proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo ikasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta landuko diren oinarritzko gaitasunak.
2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du didaktika-departamentuek eta irakasleek argitaratu egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxienezko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz -irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeko egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.
3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heldu zaiela.

64. artikulua. Ikasle eta gurasoentzako informazioa

1. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatzeko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean dutela.
2. Tutorearen betebeharrekin kalterik eragin gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela.
3. Tutoreak ziurtatu beharko du ikasturte bakoitzean gutxienez aurreko bilera bat egingo dela ikasleen gurasoekin edo legezko tutoreekin, betiere gurasoek edo legezko tutoreek eskatzen badituzte. Bilera horietan, goian aipatutako alderdiak jakinaraziko dira, baita ikasleak alderdi horiek nola betetzen dituzten ere.
4. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatutako bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, IIPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxienezko aldizkakotasun berarekin. Gainera, beharrezko neurriak hartuko dira hartzaileek informazioa jasotzen dutela ziurtatzeko.
5. Era berean, zikloko edo ikasturteko azken ebaluazio-bileretan landutako informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauen inguruko informazioa emango da:
 - a) Ikasturteko helburu orokorren betetze-maila.
 - b) Irakasgaietako edukien barneratze-maila.
 - c) Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
 - d) Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.
6. Txosten horietan, gainera, igarotzeko edo geratzeko erabakia arrazoi beharko dute. Tutoreak idatziko ditu, irakasle taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan beharko ditu ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo zikloko edo kurtsoko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua orientatzeko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu beharko dituztelarik.

65. artikulua. Ikasleen lanak, probak, zuzendutako ariketak eta grabazioak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Gainera, aldez aurretik eskatuta, horien kopia bat eskuratzeko eskubidea izango dute, zuzendu eta kalifikatu ondoren.
2. Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko orriak bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.
3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

66. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

Ikasleek edo haien legezko ordezkariak, kalifikazioak jaso eta hiru eskola-eguneko epean, alegazioak eska ditzakete, ahoz, baita egindako lanak eta probak berrikusteko eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitza, didaktika-departamentuari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango curriculum ofizialaz eta IIPz gain, didaktika-departamentuen programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla.

67. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea

1. Ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagokion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikuluen azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.
2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, didaktika-departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Didaktika-departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz –erreklamazioa egin den modu berean– erantzun dio.
3. Ebaluazio partziala izapide hutsa denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

68. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.
2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamazioak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.
3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

69. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa

1. Ikasleek azken kalifikazioak erreklamatu ahal izango dizkiote irakasleari, ahoz edo idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen esku-hartzearen bidez. Dagokion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz, 65. artikuluen azken paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta.
2. Ikasketaburuak dagokion didaktika-departamentuari aurkeztuko dio erreklamazioa. Didaktika-departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Didaktika-

departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak.

Kontuan izango du erreklamatzailaren antzerako egoeran dauden ikasleei emandako kalifikazioak.

3. Ikasleak azken ebaluazioan kalifikazio negatiboa jaso badu, haren kontrako erreklamazioa aurkeztu badu, eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritzia besterik ez badira hartu nota jartzeko, kalifikazio negatibo hori ezin izango da bere horretan utzi, salbu eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritziei buruz nahikoa informazio bildu bada.

4. Didaktika-departamentuak astebeteko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.

70. artikulua. Didaktika-departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

1. Didaktika-departamentuak bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari. Azken horrek interesdunari helaraziko dio didaktika-departamentuaren erabakia.

2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.

IV. TITULUA. IKASLEEN ANTOLAMENDUAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

71. artikulua. Ikasleen antolamendua

1. Ikastetxearen plangintzak, ahal den neurrian, erraztu egingo die kontserbatorioko ikasleei beren curriculumak osatzen duten irakasgaietako bakoitzera modu koordinatuan joatea, eta saihestu egingo du ikastetxera irakasgai solteetarako soilik joatea.
2. 16 urtetik beherako ikasleentzat araubide orokorreko ikasketetara joatea hertsiki derrigorrezkoa dela kontuan hartuta, LOEren 47. artikulua arabera, irakaskuntza horiek araubide orokorrekoekin batera egin ahal izango dira, eta, horretarako, aldi berean aritzea ahalbidetu eta erraztuko duten antolaketa-mekanismoak ezarriko dira.
3. Ikastetxeko ikasle guztien behin betiko ordutegiak esleitu ondoren, ordu libreak geratzen badira, laguntza-eta indartze-jarduerak egin ahal izango dira, hori arautzen duen barne-araudia jarraituta.

72. artikulua. Ikasleen ordutegia

1. Irakastordu gehiago daudenez, Kontserbatorioko ikasleek lehentasuna izango dute Musika Eskolako aurretik, irakasle bakoitzarekin ordutegi indibiduala adosteko eta, horrela, aurreko artikuluko 1. puntua bete ahal izateko.
2. Ikastetxeak ikasturte bakoitzean hitzordua jarriko die Kontserbatorioko eta Musika Eskolako ikasleei, egun zehatzetan, banakako ordutegiak adosteko. Aldez aurretik ikasgai komunak eta taldekatzeen ordutegiak iragarrita egongo dira.

73. artikulua. Beste Kontserbatorio batzuetatik espedientea lekualdatzea

1. Espedientea lekualdatzeko eskaerak zuzendaritza-taldeak aztertuko ditu, eta zuzendariak onartuko ditu, betiere eskatutako espezialitatean plaza libreak badaude.
2. Eskaera egiteko unean plazarik ez badago, itxaron-zerrendara igaroko dira. Nolanahi ere, sarrera-proba gaindituz Kontserbatorioan sartzen diren ikasleek lehentasuna izango dute espedientea lekualdatzea eskatzen duten ikasleen aldean.

74. artikulua. Matrikulari uko egitea

1. Edozein ikasleak matrikulari uko egiteko eskatu ahal izango dio ikastetxeko idazkariari, aurretik aurre edo idatziz.
2. Musikako ikasketa profesionalen kasuan, ikastetxeko ikasle izateari utziko zaio irakaskuntza horietan, eta ikaslea matrikulatuta dagoen irakasgai guztietako izen-ematea bertan behera utziko da, Musika Eskolan espezialitate berean onartzeko aukera alde batera utzi gabe.
3. Arautu gabeko irakaskuntzen kasuan, matrikulatuta dagoen irakasgai guztietan edo batzuetan baja eman ahal izango da, ahal bada, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren 5. puntuan jasotako Prestakuntza Planaren arabera (irakaskuntzaren antolamendua arautzen du).

75. artikulua. Ikasleen bertaratzea eta bajak

1. Ikasleek nahitaez joan behar dute eskoletara, eta ezin izango da borondatezko asistentzia-sistematik ezarri ikasleak matrikulatuta dauden irakasgaietan.
2. Irakasleek ikasleak eskoletara ez bertaratzea kontrolatu behar dute. Informazio hori, ikasleen jarraipenari buruzko informazioarekin batera, ikasleen asteko erregistro-koadernoan jasoko da.
3. Adingabeen hutsegiteak gurasoek edo legezko tutoreek justifikatu behar dituzte, eta dagokien irakasleari aurkeztu behar dizkiote.
4. Bajei dagokienez:

- a) Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak, sailek txostena egin ondoren, bertaratze-hutsegiteen kopuru hau ezartzen du, irakasgai jakin batean ebaluazio jarraitua eta integratzailea ezin aplikatzeko: eskolen % 25era baino gehiagora ez joatea. Hutsegite horiek lauhilekoka zenbatuko dira: astean ordubeteko irakasgaietan, lauhileko bakoitzeko 4 hutsegite izango dira, eta astean 2 orduko irakasgaietan, berriz, lauhileko bakoitzeko 8. Bigarren kasuan, hala izango da, baldin eta bi egun desberdinetan bertaratzen bada, eta ez elkarren segidako bi ordutan; kasu horretan, gehienez 4 hutsegite aplikatuko dira lauhileko bakoitzeko. Batzorde horri dagokio, halaber, kasu bakoitzean egokiena den ordezkio ebaluazio-prozedura ezartzea.
- b) Aurreko paragrafoan adierazitako egoera gertatzen bada, eta, horren ondorioz, ebaluazioa ezin bada aplikatu ikasturte bat osatzen duten irakasgaien erdian edo gehiagotan, baja emango da ikastetxean, eta plaza galduko da.
- c) Egoera horiek ebazteko orduan, kontuan izan behar da irakasgai batera erabat edo partzialki joateari uzten dion ikaslea beti kalifikatu behar dela ekaineko deialdi arrunteko aktetan eta kalifikazio-liburuan, salbu eta baja eman bazaio ez bertaratzeagatik edo matrikulari uko egitea onartu badu.
- d) Gaixotasunagatik, istripuagatik, atzerrian egindako ikasketengatik eta agiri mediko edo ikaslearen egoera egiaztatzen duten bestelako agiri ofizialen bidez modu frogagarrian justifikatutako bestelako hutsegite luzeek aukera emango dute ikasle horrek ofizialtasuna ez galtzeko eta hurrengo ikasturtean berriro matrikulatu ahal izateko, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak hala erabakitzen badu, ikaslearen egoera ezagutzen duen irakasle-taldeak aholkatuta. Erabaki hori ikaslearen espedientean jasoko da.

76. artikulua. Sartzea, jarraitzea eta mailaz igotzea

Ikastetxeko prestakuntza eskaintzetan sartu, jarraitu eta mailaz igotzeko, kontuan hartuko dira IHPan ezarritakoa eta Musikako lanbide ikasketetara sartu, mailaz igo eta bertan jarraitzeko legezko araudia.

V. TITULUA. ERANSKINAK

I. KAPITULUA. ZUZENDARITZA TALDEA HAUTATZEA

77. artikulua. Prozedura eta iraupena

1. Zuzendaritza-taldea osatzen duten pertsona bakarreko hiru karguak hautagai-zerrenda bakarren bidez aurkeztuko dira hauteskundeetara. Hautagai bakoitza pertsona bakarreko zein kargutara aurkeztu den zehaztuko da hautagaitza horretan. Zuzendarigaiek aurkeztu diren agintaldirako zuzendaritza-plana aurkeztuko dute.
2. Zuzendaritza-taldearen agintaldia 4 ikasturtekoa izango da.
3. Hauteskundeak agintaldia amaitzen den ikasturteko azken hiruhilekoan egingo dira. Zuzendaritza-talde berria hurrengo ikasturteko irailaren 1ean jabetuko da karguez. Hauteskundeak egiten direnetik zuzendaritza-talde berriko kide bakarreko karguez jabetu arteko epea izango da botereak eskualdatzeko eta hurrengo ikasturteko ordutegia antolatu ahal izateko aldia.
4. Hauteskunde-mahai bat eratuko da, hauteskunde-prozesua antolatzeko ardura izango duena.
5. Zuzendaritza Taldea hautesle-eroldaren gaineko gehiengo osoz hautatu behar da, hau da, erdia gehi bat; eta gehiengo horretara iristen ez bada, edo berdinketa badago, bigarren bozketa bat egingo da boto gehien jaso dituzten bi hautagai-zerrenden artean. Bigarren itzulia egiteko nahikoa izango da gehiengo soila.
6. Hautagairik ez badago, Kudeatzaileak izendatuko du zuzendaritza-taldea.

78. artikulua. Hauteskunde-mahaiaren osaera eta eginkizunak

1. Hauteskunde-mahaia ordezkari sindikal batek, irakasle zaharrenak eta irakasle gazteenak osatuko dute. Hiru pertsona horiek Hauteskunde Mahaiko lehendakaria, lehen bokala eta bigarren bokala izango dira, hurrenez hurren.
2. Hauteskunde Mahaiko kideei dagokie hauteskunde-prozesua antolatzea. Honako hauek izango dira:
 - a) Klaustroari prozesu osoaren epeen berri ematea: hautagai-zerrendak aurkeztea, bozketa-eguna...
 - b) Irakasleen gelan espazio bat prestatzea, prozesuari buruzko informazio guztia argitaratzeko eta hautagaitzak aurkezteko.
 - c) Bozketa-prozesua eta hautesle-errola kontrolatzea.
 - d) Boto eskuordetua kudeatzea.
 - e) Emaizak argitaratzea.
 - f) Prozesuak sortzen duen dokumentazio guztia zaintzea, eta klaustroaren eta OOGren eskura jartzea.
 - g) Prozesuak sortzen dituen egintza guztiak ziurtatzea.

79. artikulua. Pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzeko eta kargutik kentzeko proposamenak

1. Hauteskunde-prozesua amaitu ondoren, emaitzaren berri emango zaie klaustroari, OOGri, Kudeatzaileari eta presidenteari, irailaren 1etik aurrera izenda ditzaten.
2. Zuzendaritza-taldea kargutik kentzeko, dokumentu honen 14 h) artikuluan jasotakoa aplikatuko da.
3. Ikasketaburuak edo idazkariak kargua uzten badu, Zuzendaritza Taldeak beste hautagai bat proposatuko dio klaustroari, izenda dezaten.
4. Zuzendariak kargua uzten badu, ezohiko hauteskunde-prozesu bat jarriko da abian beste zuzendaritza talde bat hautatzeko.

80. artikulua. Hautagaiak eta hautesle-errola

1. Erakunde autonomoko LPZn agertzen den plaza duten irakasle titular guztiak, beren lanaldia edozein dela ere, pertsona bakarreko gobernu-karguetarako hautagai izango dira, honako baldintza hauek kontuan hartuta:

- a) Pertsona horrek gutxienez bi urteko antzinatasuna badu ikastetxean.
- b) Lanaldi partzialak dituzten irakasleen kasuan, eta kontuan hartuta pertsona bakarreko gobernu-organismoek ikastetxean egon behar dutela behar bezala funtzionatzeko, plaza horietakoren bati atxikitako LPZn dagoen ordu-liberazioa beti gehituko zaio aukeratutako hautagaiaren lanaldiari. Lanaldiaren % 100 gaindituz gero, eskola-denbora hori ordezkoko batek emango luke.

2. Erakunde autonomoaren LPZn agertzen diren irakasle titular edo interino guztiek izango dute botoa emateko eskubidea, haien lanaldia edozein dela ere.

81. artikulua. Botoa eskuordetzea

1. Ikastetxeko berezitasunak kontuan hartuta, irakasleek, duten lanaldiaren ehunekoa dela-eta, ezin dute asteko egun guztietan joan. Kasu horietan botoa eskuordetu ahal izango dute.

2. Boto eskuordetua ikastetxeko idazkaritzan utziko da bozketa-asteen, irakaslearen izena duen gutun-azal itxi batean, eta bertan beste gutun-azal bat sartuko da bozketa-txartelarekin.

II. KAPITULUA. ZENTROAREN BESTELAKO ARAU ETA PROTOKOLOAK

82. artikulua. Babesgabetasuna, tratu txarrak, sexu-jazarpena, sexu-arrazoiengatiko jazarpena, haur eta nerabeen sexu-abusua eta genero-indarkeria prebenitzeko eta egoera horiei aurre egiteko protokoloa

1. Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolak babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen, sexu-arrazoiengatiko jazarpen, haur eta nerabeen sexu-abusu eta genero-indarkeriako egoerak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloa idatziko du.

2. Protokolo honen funtsezko helburua da adingabeak prebenitzea eta babestea, zentroan antzematen diren babesgabetasun, tratu txar, abusu, sexu-jazarpen, sexu-arrazoiengatiko jazarpen eta genero-indarkeriako egoeren aurrean.

83. artikulua. Ikastetxetik kanpoko jarduera osagarriak.

1. Mintegi batek ikastetxetik kanpo jarduerak egitea aurreikusten duenean, Ikastetxearen Urteko Planeko jarduera osagarrien programan sartu beharko dira, eta, halakorik ez badago, OOGk onartu beharko ditu aldezturik.

2. Jarduera didaktikoen ondorioz ikasle adingabeak ikastetxetik kanpora joan behar badira, gurasoen edo legezko tutoreen idatzizko baimena beharko da.

84. artikulua. Instrumentuak lagatzea

1. Ikastetxeak eskura dituen instrumentuak laga ahal izango ditu, irizpide hauei jarraituz:

- a) Instrumentua maileguan ikasturte batez erabili ahal izango da, gehienez. Hortik aurrera, ikastetxeak ulertzen du ikasle bakoitzak bere instrumentua izan behar duela.
- b) Epe horren ondoren, eskatutako eskaerak ezohiko moduan aztertuko dira, zenbait instrumentu-espezialitateen berezko idiosinkrasia kontuan hartuta.
- c) Eskura dauden instrumentuak baino eskatzaile gehiagok betetzen badute a) puntuan adierazitako lehenengo baldintza, irakasleak txandakako prozedura bat egin ahal izango du, bere mintegian onartu ondoren.

2. Ikasleek edo, adingabeen kasuan, haien gurasoek edo legezko tutoreek mailegu-kontratu bat bete eta sinatu beharko dute. Kontratu horretan konpromisoa hartuko dute lagatutako instrumentua behar bezala erabiltzeko eta mantentzeko, bai eta sor daitezkeen hausturen edo kalteen kostua beren gain hartzeko ere.

3. Mintegi bakoitzak instrumentuen eta horien egoeraren inbentario eguneratua izango du.

85. artikulua. Ikasketa-gelak

1. Eraikineko instalazioetan ikasketa-gelarik ez dagoen arren, Ikasketaburutzak ikasgelak erabiltzeko eskaera aztertuko du, honako irizpide hauei jarraituz:

- a) Ikasgelen erabilgarritasuna, eskola-ordutegia amaitu ondoren.
- b) Kontserbatorioko ikasleek izango dute lehentasuna, eta ikasle horien artean, Durangotik kanpoko ikasleen eskaerei erantzungo zaie lehenik.
- c) Instrumentu bereziak dituzten ikasleak, hala nola kontrabaxua.
- d) Errefortzua jasotzen duten ikasleak.

2. Nolanahi ere, baimena une jakin batean edo modu iraunkorrean ukatu ahal izango da, baldin eta ikasgela hori ikasturtean zehar sor daitekeen irakaskuntza-jardueraren baterako behar bada.

86. artikulua. Ordutegia aldatzeko eskaerak

1. Ordutegia aldatu nahi duten ikasleek idazkaritzan eskatu beharko dute, horretarako eskabide bat betez eta behar bezala argudiatutako arrazoiak azalduz.

2. Ikasketaburutzak kasu bakoitza aztertu eta eskaera horiek ebatziko ditu, argudioen eta plaza-kopuruaren arabera.

87. artikulua. Ikasketa profesionalean instrumentu osagarria aldatzeko eskaerak

1. Instrumentu osagarria aldatzeko interesa duten ikasleek Ikasketaburutzari, behar bezala argudiatutako arrazoiak adierazita (arrazoi fisikoak, osasun-arrazoiak...).

2. Ikasketaburutzak kasu bakoitza aztertu eta eskaera horiek ebatziko ditu, argudioen eta plaza-kopuruaren arabera.

88. artikulua. Musika Eskolan instrumentu nagusia eta bigarren instrumentua aldatzeko eskaerak

1. Instrumentu nagusia aldatu nahi duten ikasleek:

- a) Idazkaritzan eskatu beharko dute.
- b) Beste instrumentu-espezialitate batean onartua izateko edo ez, kontuan hartuko dira zentroko IHPn jasotako onarpen-prozesua, zozketak eta itxarote-zerrenda.

2. Bigarren instrumentu bat eskatu nahi duten ikasleek:

- a) Idazkaritzan eskatu beharko dute.
- b) Bigarren instrumentuan onartua izateko edo ez, honako hauek kontuan hartuta kudeatuko da:
 - a. Plaza libre kopurua.
 - b. Datorren ikasturterako plazen antolaketa eta aurreikuspena, kontuan hartuta 2. mailan plaza bat bermatzen zaiela 1. mailatik datozen barneko ikasle guztiei, zentroko Hezkuntza Proiektuko 6.6 puntuari jarraiki.
 - c. Eskatzailearen errendimendu akademikoa.

89. artikulua. Irakaslea aldatzeko eskaerak

1. Ikasleek irakasle aldaketa eskatzeko eskubidea dute, egokitzen jotzen dituzten inguruabar pedagogikoak arrazoituta. Horretarako, eskabide bat bete eta Zuzendaritzari eman beharko dio.

2. Zuzendaritzak kasu bakoitza aztertu eta eskaera horiek ebatziko ditu, argudioen eta plaza-kopuruaren arabera.

90. artikulua. Eraikinera eta bertako geletarako sarbidea, kudeaketa eta erabilera

1. Zentrora langileak eta ikasleak bakarrik sar daitezke. Gurasoek eta legezko tutoreek beren seme-alabei lagundu ahal izango diete, beharrezkoa izanez gero, baina ezinbesteko denbora bakarrik egon ahal izango dira.
2. Ikasgelak ikastetxea irekita dagoen egun eta orduetan erabiliko dira, unean-unean indarrean dagoen lan-egutegiaren arabera, eta irakaskuntza-jardueraren garapen normalaren eta ikastetxearen ohiko funtzionamenduaren mende egongo dira.
3. Beste aldi batzuetarako, eskabide bakoitza banan-banan aztertuko da, Kontseilu Errektoreak espazioak lagatzeko onartzen duen protokoloari jarraituz, baina kontuan hartuta ikastetxeko jarduera pedagogikoek lehentasuna izango dutela beti.

91. artikulua. Ikastetxe barruan edo kanpoan grabatutako irudiak argitaratzea

Ikastetxean matrikula egitean, inprimaki bat banatuko da, eta baimena eskatuko da esparru pedagogikoaren barruan ikasleei ateratako irudiak webgunean edo sare sozialetan argitaratzeko, ikastetxean bertan egiten diren jarduerak ezagutarazteko edo argitaratzeko.